

SARRERA



Hona hemen, aurrera eraman dugun ideia; gaur egun, jaien ondorioz itzelezko plastiko pilaketak sortzen dira kaleetan botilen eta poltsengatik. Dakizuenez, plastikoa pil-pilean dagoen gai bat da; plastikoa denetariko gauzak egiteko erabiltzen da (gehienetan beharrezkoak ez diren gauzetarako). Plastiko horren kantitate oso handia itsasoan amaitzen du eta oso ondorio kaltegarriak ditu.

Arazo hau ekiditeko gazteek bereziki erabiliko duten kontainer bat diseinatu dugu, non botilak sartzeagatik gosari desberdinak eskaintzen dituen birziklatzeko pizgarri moduan.

Kontainerraren bitartez, jaietan lurrean gelditzen den plastiko gehiena batuko litzateke. Jendeak parte hartuko du trukean sariak jasoko dituztelako. Honela guztiok batera jaietan pilatzen den plastikoarekin bukatuko genuke.

Jasotako plastikoa saldu egingo dugu aparteko diru sarrerak lortzeko asmoarekin.

Orain truke sariak zeintzuk diren azalduko ditugu; 3 botilengatik zuku bat, 5 botilengatik pintxo edo opil bat, 8 botilengatik pintxo edo opila eta zukua eta azkenik 10 botilengatik pintxo, kafea eta zuku bat.